

Osoko bilkura

Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia

2015eko urriaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo
Arejita ahala Andres Urrutiari; Jabier

Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari;
Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari;
Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni
Sagarnari.

Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian hasi da, goizeko 11:50ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urriko Osoko batzarri hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2015-09-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik egin eta, beraz, akta ontzat eman da.

2. Hiztegi Batuaren 2. itzulia

2.1. Zerrenda osagarriak

2.1.1. Hatzen izenak: iraileko bileran eztabaidatua eta urriko bileran berrikustekoa. A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek gogorarazi dutenez, iraileko Osoko bilkuran *Hatzen izenak* atala bukatu gabe utzi zen, Beñat Oihartzabalek *NolaErran*-eko corpuseko datuak agindu baitzituen, horien argitan berrikusteko. Hala egin da, eta *eri potots, eri erakusle, erdiko eri, eraxtun eri* eta *eri tipi* formak jaso dira, guztiak ere *Ipar. markarekin*.

2.1.2. Musika-notak. Euskaltzainek ez diote oharrrik egin aztergai honi, baina Hiztegi Batuko lantaldeak berak bi proposamen (**klabe** *Heg.*, eta sostenidu* **e. die-se**, araua aldatzeko eskatuz) eta beste bi forma berri proposatu ditu (**krako** eta **krako bikoitz**).

Atala jorrazteko, hiru dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua 2.* itzulia: musika notak (zerrenda osagarriak)»– lehenengo orrialdean, aurretik arauturiko hamaika forma ageri dira; lehenengo eta bigarren orrialdeetan, aurretik araututako forma osatuak eta Osoko bilkuran besterik gabe onartuak diren hamaika forma azaltzen dira; bigarren orrialdean, besterik gabe onarturiko bost forma ageri dira gehi F markarekin utzi eta oharrrik gabe jasotako forma bat, bai eta lantaldeak egindako proposamen berri bat ere. Bigarren txostenean, Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak azaltzen dira. Hirugarren txostenak, «*Hiztegi Batua 2.* itzulia: musika notak. Informazio gehigarria» du izenburutzat eta Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenei buruzko informazio osagarria eskaintzen du.

F markarekin utziriko **klabe** eta lantaldeak eginiko proposamena eztabaidatu dira Osoko bilkuran. Izan ere, gainerako proposamenak bere horretan onartu dira. Horiek horrela, adostasunik egon ez denez, euskaltzainburuak lantaldearen proposamena botoetara eraman nahi den galdetu eta halaxe egitea erabaki dute euskaltzainek, emaitza honakoa izanik: lantaldeak proposatutakoaren alde 12 boto eta 8 zuri. Kontrako botorik ez da eman. Ondorioz, erabaki gabe utzitako **klabe** forma onartu da, *Heg. markarekin* eta *giltza* forma arautua definitzaile gisa jasota: «**klabe** iz. *Heg. Mus.* “giltza”». Lehendik baztertua zegoen *sosteniduren* ordez *sostenitu* berreskuratzea proposatu da, eta hala onartu: «**sostenitu** iz. *Heg. Mus.* “diesea”».

Iparraldean *kortxea* eta *kortxeaerdi* onartuak ezagutzen ez direnez, *krako* eta *krako bikoitz* proposatu dira, eta onartu: «**krako** iz. *Ipar. Mus.* “kortxea”», eta azpissarrerara gisa «**krako bikoitz** iz. *Ipar. Mus.* “kortxeaerdi”».

2.1.3. -TAN bizialdia. Atala jorrazteko, bi dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua 2.* itzulia: -TAN bizialdia, ondorioak (2015-07-

15)»– lehenengo orrialdean, aurretik arauturiko hamazortzi forma ageri dira, bai eta besterik gabe onarturiko beste sei ere; bigarren orrialdean, besterik gabe isilduriko hamar forma ageri dira gehi F markarekin utzi eta oharririk gabeko forma bat (**nagusitan**) ere. Azken hau, beste dokumentu batean («*Hiztegi Batua* 2. itzulua: Informazio osagarriak») jorratu da.

Lantaldeak proposatuari ez zaio oharririk egin eta, beraz, aurkezturikoa ontzat eman da. Baina *nagusitan* forma zalantzan utzia zegoen eta berriro aurkeztu da, sartzeko proposatuz, berria dela jakinda, Hego Euskal Herrian gaur erabili egiten delako. Adostasunik egon ez denez, euskaltzainburuak lantaldearen proposamena botoetara eramanez nahi den galdetu eta halaxe egitea erabaki dute euskaltzainek, emaitza honakoa izanik: lantaldeak proposatutakoaren alde 15 boto, 1 kontra eta 4 zuri. Ondorioz, onartu egin da *nagusi* sarrerako azpisarrera gisa «**nagusitan** adlag. *Heg.*» sartzea.

2.1.4. Zodiakoa. Atala jorratzeko, dokumentu bat aurkeztu da («*Hiztegi Batua* 2. itzulua: Zodiakoa. Zerrenda osagarriak. Ondorioak»). M. Urkiak argitu duenez, 173. arauak jaso zuen zodiakoa eta *Hiztegi Batura* ekarri da, aldaerak sinonimo gisa aipatuz eta sarrerak osatuz. Oharririk ez da egin, beraz, gaia bere horretan jasotzea erabaki da.

2.1.5. Zientzia-unitateak. Atala jorratzeko, bi dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua* 2. itzulua: zientzia unitateak (zerrenda osagarriak)»– lehenengo lau orrialdeetan, lehendik arauturiko berrogeita hamasei forma ageri dira; laugarren eta bosgarren orrialdeetan, lehendik araututako forma osatuak, Osoko bilkuran besterik gabe onartuak diren hogeita bat forma jaso dira; bosgarren orrialdetik zortzigarren orrialdera, besterik gabe onarturiko laurogeita hamar forma ageri dira; zortzigarren orrialdean, izen propiotikoen sailean atal honetan aztertzeko utziriko bederatzita forma ageri dira; zortzigarren eta bederatzigarren orrialdeetan, besterik gabe isilduriko hirurogeita hamazazpi forma ageri dira.

Bigarren txostenean, «Zientzia unitateak» izenekoan, izen propiotikoen saila aztertzean, sail honetan berrikusteko utziriko formak ageri dira (**dekanewton, gigaelektronvolt, gigahertz, hektopascal, henry, kilohm** edo **kiloohm, maxwell, miliampere** eta **pikofarad**). Horiek horrela, forma hauek Bigarren Hezkuntzan arruntak direnez, guztiak sartzea onartu da aurretik proposatutako guztiarekin batera.

2.1.6. Mineralak. Atal honi X. Videgain euskaltzain osoak ohar bat egin dio (**aguamarina**). Gai hau aztertzeko hiru dokumentu baliatu dira; batetik, «*Hiztegi Batua* 2. itzulua: mineralak (zerrenda osagarriak)»; bestetik, X. Videgainen oharra jasotzen duen txostena; eta azkenik, horren inguruko informazio gehigarria.

Lehenbiziko txostenaren lehenengo eta bigarren orrialdeetan, aurretik arauturiko hogeita bederatzita forma ageri dira; bigarren eta hirugarren orrialdeetan, aurretik araututako forma osatuak, besterik gabe onartuak diren sei forma jaso dira; hirugarren orrialdetik seigarrenera, besterik gabe onarturiko berrehun eta hogeita lau forma; seigarren orrialdean, besterik gabe isilduriko hogeita bederatzita forma; seigarren eta zazpigarren orrialdeetan, F markarekin utzi eta oharrak gabeko hamahiru forma; amaitzeko, zazpigarren orrialdean, 3. itzulirako utziriko hamahiru forma ageri dira.

Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira. Lantaldeak erabaki gabe utzitako *aguamarina* forma dela eta, datuak ikusita, **akuamarina** forman jasotzea onartu du Osoko bilkurak.

Honekin 2. itzulia osatzeko zerrenda osagarriak erabat landuta utzi dira. Exonomastika batzordeari bidaltzeko dokumentua prestatuko du Hiztegi Batuko lantaldeak eta Xabier Kintana batzordeko buruari helaraziko dio. Bestalde, Euskaltzaindiak 173. araua («Astroen izenak») kaleratu zuenean, «Alfabeto grekoaren letrak eta letren izenak» eranskina ere eman zuen argitara. Horietako gutxi batzuk jasoak ditu *Hiztegi Batuak*, baina ez guztiak. Lantaldeak *gamma* forma aztertzean, horiek guztiak jasotzea komenigarria zela aipatu zuen, eta horixe da Osoko bilkurari gaur eskatu diona: forma araututzat jotzen diren forma horiek *Hiztegi Batuan* ere integratu ahal izatea. Eginiko eskaria onartu da bileran, baina letren izenekin batera letrak berak jasotzea eskatu da, eta halaxe egingo da.

2.2. ZTHB vs Hiztegi Batua: Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak bateratzea. Aurkezpena. ZTHBk aztertu eta Osoko bilkurak onartutako Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak *Hiztegi Batuarekin* bateratzeko saio bat egin dute bi lantaldeetako kideek. Bilkuran aldaketa-proposamenak aurkeztu dira. Horiek horrela, aurkeztutako bi zerrendei oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 16an amaitzen dena.

3. Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2016. urterako egutegia aurkeztu du. Behin-behinekoa den dokumentu honetan, Osoko eta Ageriko bilkuretarako datak eta tokiak proposatzen dira. Era berean, gogoan har daitezkeen euskaltzainak, pertsonak, bai eta argitalpen esanguratsuak zerrendaturik ageri dira. Horiek horrela, aurkeztutako egutegiari iruzkinak zein oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 16an, astelehenean, amaitzen dena.

4. Esku artekoak.

4.1. Ikerketarako Estatutuaren garapena. EHUren eta Euskaltzaindiaren artean akordioa izenpetu da, besteak beste, graduondoko lanak, tesiak zein praktikak Euskaltzaindiaren ordezkaritzetan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean edota egoitzan egin ahal izateko, bai eta Euskaltzaindiaren askotariko funtsak baliatzeko eta euskaltzain osoek, ohorezkoek zein urgazleek, tesiak zuzentzeko modua izateko ere. Akordio honen garapen gisa, bi erakundeen artean argitalpenak sustatzeko aukera indartuko da. Zuzendaritzak lankidetzak-hitzarmen hori Ipar zein Hego Euskal Herriko bestelako unibertsitateekin izenpetzeko ahaleginak egingo ditu.

4.2. Hurrengo bilkurak. Hurrengo bilkuretarako xehetasunak eman dira.

- Azaroaren 20an XX. Jagon jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan. «Hedabideak euskararen sustapenean» izango da jorratuko den gaia. Xehetasunak datorren astean emango ditu Idazkaritzak, Sustapen batzordea bildu ondoren.
- Azaroaren 27an Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan, goizeko 10:00etatik aurrera.

5. Azken ordukoak.

5.1. X. Videgainen iruzkina azkenaldian egin diren jardunaldiei buruz. Buruordeak, hiru jardunaldi hauek izan ditu hizpide. Batetik, *Iratzeder* euskaltzain emeritu zenari Donibane Lohizunen eginiko omenaldia; bestetik, P. Larzabal euskaltzain oso zenaren jaiotzaren mendeurrenaren harira, urriaren 16an Literatura Ikerketa batzordeak Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Baionako Campuseko Tesien gelan, antolaturiko jardunaldia; eta, azkenik, Ahoskera batzordeak urriaren 23an, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean antolaturikoa. Omenaldi eta jardunaldiak ondo joan direla eta parte hartze zabala izan dutela azpimarratu du. Ondoren, A. Toledo Literatura Ikerketa batzordeko buruari eta M. L. Oñederra Ahoskera batzordeko buruari zorionak eman dizkie.

5.2. Jose Luis Lizundia euskaltzain emerituaren egoeraren berri. Idazkariordeak adierazi duenez, J. L. Lizundiak behazuneko ebakuntza bat izan zuen urriaren hasieran, Usansoloko erietxean. Hasiera batean, gauzak ondo joan baziren ere, osasun egoerak okerrera egiten zuela ikusita, senideak larritu eta eskaner bat egin ondoren tumore bat aurkitu zioten buruan. Ondorioz, Barakaldoko Gurutzetako erietxera eraman zuten ebakuntza egiteko eta harrezkero larrialdi gelan egon da. Nolanahi ere, badirudi ondo bidean doala eta laster, berriz, Usansoloko erietxera

eramanen dutela. Gelara eramaten dutenean, idazkariordeak oharra igorriko die euskaltzainei, hala nahi dutenek bisitatzeko modua izan dezaten.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2015eko urriaren 30ean

Koldo Mitxelena euskaltzain osoaren jaiotzaren
mendeurrena

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, goizeko 10:00etan, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena hizkuntzalari, kulturegile eta euskaltzaina omendu du, haren jaiotzaren mendeurrenean.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Larkarra, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Koldo Artola, Antonio Campos, Ana Maria Etxaide, Maite Idirin eta Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Jose Agustin Arrieta, Jacinto Iturbe, Joxe Mari Iturralde, Elixabet Perez Gaztelu, Miriam Urkia eta Patri Urkizu.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia; Denis Itxaso Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko foru ahaldu; Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako foru ahaldu; Marisol Garmendia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru ahaldu eta Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia.

Rafael Mitxelena Koldo Mitxelenaren semea eta Damiana Elizalde Rafael Mitxelenaren emaztea.

Ekitaldiari hasiera Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak eman dio. Bilkura horretan egotea «ohorea» dela esan ostean, Koldo Mitxelenaren bi ezaugarri nagusi azpimarratu ditu: «bere konpromisoa bere herria eta bere hizkuntzarekin, batetik, eta Euskal Herrian bere irudiak ikasgai franko dakartzala, bestetik». Ondoren, Mikel Zalbide eta Joseba Lakarra euskaltzainak izan dira Koldo Mitxelenak utzi digun ondare aberatsa aztertu dutenak. Zalbidek «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola» mintzaldia eman du eta Lakarrak «Koldo Mitxelena, euskalaria euskaltzaleen artean» izenekoa.

Mikel Zalbidek ikuspegi globaletik heldu dio gaiari. Bere esanean «ez gara munduan bakarrak, ahulduriko egoera horretan gaudenak eta, hizkuntza bizirik gordeko badugu, konponbideren bat asmatu, zehaztu, adostu eta aplikatu behar dugunak... Mende luzea daramagu euskaldunok euskara nola indarberritu aztertzen. Aztertzen eta, ahal izan denetan, diagnostiko bateratura iritsi eta elkar hartuz adostutako egitasmoak osatzen». Eta honako hau erantsi du gero: «Gure etxerako egozia den irtenbide zuhurrena bilatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharrean gertatu gara horregatik, behin eta berriro, XX. mendean. Eztabaida-iturri luze, sarritan mikatz eta ia beti unagarria bihurturik dugu, horrexegatik, “euskara nola indarberritu?”, eta “bere gizarte-indarra zer neurritaraino jaso?” galdera-parea». Hala, bada, zertan mamitzen dira bi galdera horien erantzunak, Mitxelenaren argitan? Hona emaitza, Mikel Zalbideren esanean: «Euskararen lekua bihar-etziko gizartean: euskara nora eraman nahi dugu? Mitxelenaren ustez, diglosia kontuarekin ez zen nola hala jardutea komeni: aho biko ezpata izanik zen diglosia, mende luzez, guretzat eta gurea bezalako beste hainbat hiztun-elkarterentzat. Bera ez zen euskal elebakartasun territorial hutsaren aldeko».

Ohar hauekin eman dio Zalbidek bere azalpen-saioari amaiera: «Gizon zentrala izanik da Mitxelena, goren mailako linguistaz gainera, Euskal Herriaren 1950 eta 1987 arteko panorama soziokulturalean; hizkuntza-soziologiaren esparruan gure artean inork gutxik bezalako formazio akademikoa izanik du: Parisen, unibertsitatean, soziolinguistika-irakasle izanik da; formazio akademiko sendo horrezaz gainera euskara-erdaren historia sozialari buruzko ezagutza sakona, inork baino sakonagoa, zuen errenteriar maisuak; euskara-erdarek XX. mendeko gizarte-bizitzan ageri zituzten moldaera berezi, desorekatu eta egonezinekoen jakitun zen oso, kontu horretan bidelagun askotxo zuelarik bertako euskaltzale zintzo eta eragileenen artean; kanpotik eskuratutako jakituria teorikoa eta bertako jardue-

nean lortutako ezagutza praktikoa oso era pertsonal eta berezian uztartu zituen Mitxelena».

Aurretik ere beste askok egin duten bezala, Joseba Lakarra euskaltzainak ere argi utzi du: «Koldo Mitxelena izan da, zalantzarik gabe, euskalari gorenena... Artean ez zuten mailara eraman zituen euskal linguistika eta filologia, hainbat lan bikain osatuaz». Bereziki hiru lan azpimarratu ditu: *Fonética histórica vasca* (1961/1977), *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964) eta, guztien oinarri den, *Lenguas y protolenguas* (1963).

Lakarraren hitzetan, «bere burua linguistika historiko zientifikoa sortu zuten neogramatikoen jarraitzailetzat aitortu zuen eta Antoine Meilletek (1925) eskatu bezala, eskura zitezkeen teoria linguistiko hobereana eta filologiarik finena elkartu ziren haren jardunean». Era berean, Joseba Lakarrak gogora ekarri du K. Mitxelena Euskaltzaindiaren unerik latzenetan (1950-) erakundearen gidari ukaezina izan zela heriotzara arte (1987), *Orotariko Euskal Hiztegia* abiatu utziaz. Azkueren Hiztegia ordezkatzeko Erakundeak 50. urtearen erdialdera Mitxelena egindako eskaria, haren hainbat hamarkadatarako ikerketaren ondorioz –eta Ibon Sarasolak gidatu talde-lan eraginkorraren bidez– Euskaltzaindiaren izenari lotua dabilen ikerketa-lan erraldoi eta oparoena bilakatu zen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ere *Orotariko Euskal Hiztegia* aipatu du eta Euskaltzaindiak Erretereriako hizkuntzalariari «zor dizkion» lanen artean kokatu du. «Koldo Mitxelena -esan du- dugu euskaltzain oso hori, bere baitan bildu zituen euskara, unibertsitatea eta akademia, garai latz eta gogorretan. Izan ere, gerra osteko euskalgintzaren barruan loratu zen Mitxelena, gerra zibilaren partaide izan eta horren ondorio mingotsak pairatu ondoren».

Era berean, Andres Urrutiak Villasante, Satrustegi, Haritschelhar, Knörr, Aresti... euskaltzainak ekarri ditu gogora. «Belaunaldi oso bat», esan du: «Gaurko omenaldiak aukera ederra ematen digu Koldo Mitxelena zenarekin batera belaunaldi hori ere agurtzeko eta eskertzeko, horiek izan zirelako, besteak beste, euskararen batasuna ahalbidetu eta abiarazi zutenak. Eskerrak, beraz, Mitxelena maisuari, jakin izan zuelako Euskaltzaindiaren bizimoduan bere burua barruratzen eta konprometitzen, zeregin akademiko desberdinetan, karguetatik hasi eta ikerketa lanetan amaitu».

Ekitaldian zehar, Antton Valverde kantariak abesti batzuk interpretatu ditu. Antonio Valverde bere aitak egin zuen Mitxelena erretatuaren aurrean, pozik agertu da: «Nire aita ere orain 100 urte jaio zen, eta Mitxelenaekin mila lekutan

egon zen, eta mila gauza konpartitu. Besteren artean, bere herriarekiko eta bere hizkuntzarekiko maitasuna».

Ekitaldia amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Markel Olano ahal-dun nagusiak Diputazioaren beiratearen irudia duen oroigarria eman diote Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Honela dio: «Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendeurrenean. 2015-10-30».

Antton Valverdekan kantaturiko beste kanta batekin, 11:45 direnean ekitaldia bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria